

SDEIBAR

# Sei hileko txostena

Martxoa 2017



## Amaia Gorostiza
SD Eibar-aren Presidentea

Akziodun maitea:

Jarduera ekonomikoaren puntu honetara iritsita, bitarteko egoera finantzarioak ditugu eskura, erakundearen zenbaki handien betetze-gradua zehazteko lehen mailako adierazgarria dena.

Zuekin datu hauek elkarbanatzea atsegin dut, Kluba bide onetik doala erakusten dutelako eta programatutako helburuak betetzen direlako, buletin honetan dagoen koadroan zehazten den moduan.

Hamar hilabete bete dira Klubaren presidentzia hartu nuenetik, eta denbora honetan Klubarekin konpromezu eta esperientzia handiko Kontseilari talde zoragarriaren, eta kirol eta kudeaketa arloan erakundearen egunerokoa modu eraginkorrean eta kaudimenarekin eramaten duten langileen buruan egoteko ohorea eduki dut. Hau da Eibarren egonkortasuna mantentzeko modu fidagarriena eta taldea munduko liga onenean finkatzeko erronkari aurre egiteko bermea.

Bi hilabeteko epean –ekainaren 1ean- Klubaren Administrari Kontseiluaren hauteskundeak egingo dira, erakundearen etorkizunarentzako berebiziko data.

Akziodunek kandidatura eta programak aztertzeko konpromezu eta ardura hartuko duten konbentzimendua daukat, maite dugun Klubarentzat onena dena erabakitzeko.

Aupa Eibar!!



# SD Eibarren Administrari Kontseilurako hauteskundeak ekainaren 1ean egingo dira

SD Eibarren Administrari Kontseilua aukeratzeko hauteskundeak ekainaren 1ean egingo dira Astelena frontoian.

Hauteskunde prozesu hau bultzatzeko asmoz, Klubak Hauteskunde Prozesuaren Antolakuntza Batzordea osatu du, Jose Miguel Fiallegas eta Jon Ander Ulazia kontseilariek eta Patricia Rodriguez Zuzendari Gerentea osatzen dutena.

Martxoaren 24ra arte egon zen zabalik etorkizuneko Administrari Kontseilurako hautagaitzak aurkezteko epea.

Martxoaren 25ean hasi zen Akziodun Batzordean jarraituko diren baldintzak zehazteko bilerak egiteko epea, izan ere, estatutuek ez dute ezartzen zehaztu behar diren irizpideak. Apirilaren 10ean amaituko da epea.

Irizpide hauen artean, besteak beste, hurrengo Administrari Kontseilua osatuko duten kontseilari kopurua dago, Akziodun Batzordearen bitartez indibidualki edo boto uztearen prozesuaren bitartez hautatuak izango direnak.

Mendate elkarteak dituen akzioak, lehen kapital handitzetik datorren paketearen jabea eta Fundazioak bere esku duena, hauteskunde prozesutik geratuko dira eta hautagaitzek ezingo dituzte erabili.

Apirilaren 10ean zehaztu da Administrari Kontseiluaren bilera, non ekainaren 1eko Akziodunen Batzar Orokorra formalki deituko den, hauteskundeak egingo diren eguna.

# Bitarteko informazio finantzarioa (31/12/2016)

| | 31.12.2016 | 30.06.2016 |
|---|---|---|
| | [En miles de euros] | |
| **ACTIVO NO CORRIENTE** | **16.552** | **9.559** |
| Inmovilizado intangible | 9.787 | 4.619 |
| Inmovilizado material | 6.265 | 4.440 |
| Inversiones financieras a largo plazo | 500 | 500 |
| **ACTIVO CORRIENTE** | **22.953** | **13.479** |
| Existencias | 307 | 12 |
| Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar | 4.233 | 2.452 |
| Inversiones en empresas del grupo y asociadas a c/p | 3 | 3 |
| Inversiones financieras a corto plazo | 17.116 | 9.997 |
| Periodificaciones a corto plazo | - | 5 |
| Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 1.294 | 1.010 |
| **TOTAL ACTIVO** | **39.505** | **23.038** |
| **PATRIMONIO NETO** | **21.476** | **14.434** |
| Fondos propios | 20.845 | 13.768 |
| Capital | 2.802 | 2.802 |
| Reservas | 10.966 | 4.045 |
| Resultado del ejercicio | 7.077 | 6.921 |
| Subvenciones, donaciones y legados recibidos | 631 | 666 |
| **PASIVO NO CORRIENTE** | **201** | **215** |
| Pasivos por impuesto diferido | 201 | 215 |
| **PASIVO CORRIENTE** | **17.828** | **8.389** |
| Provisiones a corto plazo | 21 | - |
| Deudas a corto plazo | 534 | 712 |
| Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar | 11.993 | 7.214 |
| Periodificaciones a corto plazo | 5.280 | 463 |
| **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO** | **39.505** | **23.038** |

## Cuenta de pérdidas y ganancias (período 6 meses)

| | 31.12.2016 | 31.12.2015 |
|---|---|---|
| | [En miles de euros] | |
| **Importe neto de la cifra de negocios** | 20.252 | 18.046 |
| Ingresos deportivos | 644 | 846 |
| Ingresos por retransmisiones | 18.731 | 16.317 |
| Ingresos de comercialización y publicidad | 877 | 883 |
| **Aprovisionamientos** | (112) | (320) |
| Consumo de material deportivo | 251 | (47) |
| Otros consumos y gastos externos | (363) | (273) |
| **Gastos de personal** | (10.549) | (5.733) |
| Gasto de personal deportivo | (9.550) | (4.994) |
| Sueldos y salarios personal no deportivo | (790) | (588) |
| Cargas sociales personal no deportivo | (209) | (151) |
| **Otros gastos de explotación** | (4.647) | (3.593) |
| Servicios exteriores y tributos | (1.827) | (1.635) |
| Desplazamientos | (416) | (176) |
| Gastos de adquisición de jugadores | (1.323) | (605) |
| Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales | (70) | (61) |
| Otros gastos de gestión corriente | (1.011) | (1.116) |
| **Amortización del inmovilizado** | (439) | (323) |
| **Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras** | 49 | 49 |
| **Deterioro y rtado. por enajenaciones del inmov.** | 5.250 | - |
| **RESULTADO DE EXPLOTACIÓN** | 9.804 | 8.126 |
| **Ingresos financieros** | 26 | 33 |
| **Gastos financieros** | (1) | (71) |
| **RESULTADO FINANCIERO** | 25 | (38) |
| **RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS** | 9.829 | 8.088 |
| **Impuesto sobre sociedades** | (2.752) | (2.052) |
| **RESULTADO DEL EJERCICIO** | 7.077 | 6.036 |



# Ekialdeko tribunaren aurkezpen ofiziala

Real Madriden aurkako partidua baino lehen Ipuruako Ekialdeko Tribunaren aurkezpen ofiziala egin zen. Bertan, Julen Lopetegui Espainiako hautatzailea egon zen, nork gero Futboleko Kluben Kudeaketa Teknikoan Adituen Ikastaroko ikasgai bat eman zuen, SD Eibar Fundazioa eta EHU-k antolatuta.

Amaia Gorostiza SD Eibarreko presidentearekin batera, Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol diputatua eta Miguel de los Toyos Eibarko alkatea egon ziren.

Ekialdeko Tribuna berriak 70. hamarkadan jasotakoa ordezkatzen du; eta eserleku berriak, zerbitzu higieniko eta taberna, segurtasun eta irteera neurri berri eta hobetuak, lau bomitorio, igogailu bat, eta mugimendu murriztua duten pertsonek partida hobeto ikus ahal izateko plataforma eskaintzen ditu.

## Eibarrek herriko kirol-taldeak ekonomikoki laguntzen ditu



SD Eibar Fundazioak hainbat hitzarmen sinatu ditu Eibarko hamaika kirol-talderekin klub armaginetik jasoko dituzten diru-laguntzak zehazteko, Eibarko Udaletik jasotakoak bikoiztu dituztenak.

Amaia Gorostiza SD Eibarreko presidenteak ekitaldian esan zuenez, "eman diguten guztia Eibarri bueltatzea" Administrari Kontseiluaren lehentasunetako bat da. Miguel de los Toyos alkateak laguntza ekonomiko hau eskertu zuen eta SD Eibarrek Eibarko kirol taldeei "oparoaldi ekonomikoa itzultzeko bokazioa".

## Beteranoak, gure enbaxadore onenak



Gure beteranoen taldea SD Eibarreko egituraren barruan dago ofizialki otsailetik, Klubeko bete edozein talderen moduan.

Hemendik aurrera, beteranoen taldeak modu ofizialean ordezkatu dezake klub armagina kirol ekintzetan, eta erakunde eta gizarte ekitaldietan, eta Eibarren balioen benetako enbaxadoreak izango dira.

Berriki egindako ekintzen artean, lehen talde armaginak Valentziara egindako bidaia aprobetxatuz hango talde zuriaren beteranoaren aurka jokatutako partidua dago. Gero, martxoaren 11ean, Iparraldeko Liga Solidarioa txapelketa jokatu zuten beteranoek Eibarren.

## Emakumezkoen taldea, mailari eustea bermatuta



SD Eibarren Emakumezkoen Lehen Taldeak mailari eusteko helburua bermatuta dauka Bigarren Mailan, aurrekoarekin alderatuz erregulartasun eta kaudimen handiagoa erakutsi duen denboraldian.

Sailkapenaren erdian kokatuta, abantaila handia dauka jaitsiera postuetan dauden taldeekiko eta liga lehen lau taldeen artean amaitzeko aukerak ditu.

Erakunde mailan, Eibar Emakumezkoen Futbol Kluben Elkarteko kide egin da, hurrengo urteotan modalitate honen zabalkundearen buru izateko deitua den erakundea.

## Ligan sendo




Txapelketa amaitzeko azken txanparen faltan, Eibar sendo dabil Ligan eta txapelketa zoragarria egin du ustekabeko talde bilakatuz.

Jose Luis Mendilibarren taldeak erakusten du, jardunaldiz jardunaldi, edozein areriorekin lehiatzeko gai dela eta momentu oro sailkapeneko lehen hamar taldeen artean egoteko erregulartasuna mantentzen duela.

Jaitsiera postuetatik abantaila handiarekin, armaginak mailari eustea ziurtatzear daude goi mailan beste denboraldi bat gehiagoz, Klubaren helburu nagusia dena.

Azken bi denboraldietan gertatutakoarekin alderatuz, Eibarrek ez du jaitsi bere errendimendua bigarren itzulian eta LaLiga lehen hamaren atean amaitzeko helburua zehaztu du.

Ipuruako zaleak bere taldearen emaitza eta jokoaz gozatzen ari dira, eta oraindik denboraldi amaiera geratzen da talde armaginaren historian geratuko den denboraldia borobiltzeko.

## Mendilibar eta Enrich, Liga-ko onenak otsailean




Otsailean egindako futbolak eta lortutako emaitza onek (hiru garaipen, berdinketa bat eta porrot bakarra), Jose Luis Mendilibar eta Sergi Enrich txapelketako onenak modua izendatuak izatera eraman dute urteko bigarren hilabetean.

Mendilibarrek Luis Enrique Martinez (FC Barcelona) eta Jorge Sampaoli-ren (Sevilla FC) aurretik lortu du entrenatzaile onenaren saria, eta Sergi Enrich Leo Messi (FC Barcelona) eta Fernando Torresen (Atletico de Madrid) aurretik izan da jokalari onena izendatua.

Eibarren entrenatzaile eta aurrelariak Ipuruan egindako ekitaldian jaso zuten saria, LaLiga-ko eta Santander Bankuko ordezkarien eskutik.




SDEIBAR



## Lagunarteen Federazioa martxan da

SD Eibarren Lagunarte Ofizialen Nazioarteko Federazioa Klubaren lagunarteen eta beste kluben lagunarteen arteko harremanak estutu eta sustatzeko helburuarekin eratu da, besteak beste. Federazioa Lagunarte eta Klubaren arteko erlazioen solaskidea izango da, eta azken honek diru-laguntza bat jarri du abian hainbat ekintza aurrera eramateko, desplazamendu guztietarako doako autobusa ipintzea bezala.